

"HIZKETA" APLIKAZIOA

LANHITZEKO ERABILTZAILEAREN GIDA

Aplikazioan alta eman

Lehenik eta behin, **erakundearen fitxa eta erabiltzailearen fitxa** bete eta lanhitz@euskadi.eus helbidera bidali "Hizketa" aplikazioan alta emateko.

Fitxa horiek eskuratzeko:

- ✓ [Webgunetik](#) deskargatu
- ✓ Egoitza elektronikotik deskargatu
- ✓ lanhitz@euskadi.eus postontzian eskatu

Aplikazioan sartu

Erabiltzaileak **ziurtagiria digitala** behar du [aplikazioan sartu](#) ahal izateko:

- ✓ Kudeatzen duen erakundearen ziurtagiria
- ✓ NAN elektronikoa
- ✓ Izenperen itsatsontzien jokoak
- ✓ Herritarraren ziurtagiria
- ✓ Pertsona fisikoaren ziurtagiria (Izenpe)
- ✓ Pertsona fisikoaren ziurtagiria (FNMT)
- ✓ Erakundeko ordezkarien ziurtagiria

Erabiltzaileak erakundearen ziurtagiria edo erakundeko ordezkariaren ziurtagiria erabiltzen ez badu, [Ordezkarien Erregistroan](#) izena eman beharko du.

Erabiltzaileak zein erakundetan jardungo duen adierazi behar du aplikazioan (teknikari bat hainbat erakundetako solaskide izan daiteke).

"Erakundearen datuak" atalean entitateari buruzko datuak zuzendu edo aldatu daitezke.

Eskaerarekin batera egin beharrekoa

Plan estrategikoa gehitu

- ✓ **2025-2026 urteetarako** plan estrategikoa sortu:
 - Hasiera data, 2025ekoa eta amaiera data, 2026koa
 - Elebidunen ehunekoa
 - Plan estrategikoaren onarpen data
- ✓ "Xehetasunak" botoia sakatu eta EMEn 3. mailako elementuetan honako hauek adierazi:
 - Hasierako % (egungo egoera)
 - Aurreikusitako % (helburua edo erakundeak lortu nahi duen aurrerapen maila)

Kudeaketa plana gehitu

- ✓ Erakundearen zein Plan Estrategikoren barruan sortu nahi den Kudeaketa Plana aukeratu, hau da, Lanhitzeko Kudeaketa Plana gauzatuko den urte bereko Plan Estrategikoa.
- ✓ Ekintzak 3.mailako elementuekin lotuko dira. Bi aukera:
 - HPSk definitutako ekintzetatik nahi direnak aukeratu
 - Ekintza berriak sortu
- ✓ Ekintza bakoitzari buruzko informazioa osatu.

Justifikazio-fasean egin beharrekoa

Plan estrategikoa: amaierako egoera

- ✓ Plan Estrategikoaren amaierako ehunekoa adierazi 3. mailako elementuetan, lortutako helburua.

Kudeaketa plana: amaierako egoera

- ✓ Aurreikusitako ekintza bakoitzaren amaierako egoera adierazi:
 - Eginda
 - Atzeratuta: arrazoia eman (euskaraz eta gaztelaniaz) eta ekintza gauzatzeko data berria zehaztu.
 - Bertan behera utzita: arrazoia eman (euskaraz eta gaztelaniaz).